

La Jaran ari dira ospatzen; gaur haurren eguna izango da ▶ 2



«Arrakastatsua eta jendetsua» izan da Leitzako II. Talo Eguna

«GUSTURA» ▶ Plazaola Partzuergotik eta talogileak pozik azaldu dira; talo eskaintza zabala izan zen ▶ 7



Villabonatarrek eta saralegitarrek gogor egin zuten lan euren postuetan. ANDER OTEZABAL



N. URBIZU

Ikasleek ikastetxeak bete dituzte ikasturte berrirako

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Batzuk lehengo asteen hasi baziren ere, eskualdeko ikastetxe gehienek atzo ekin zioten ikasturteari ▶ 5



PATXI ITURRIAGA ▶ GAZTELUKO ALKATEA

«Burua argi, ideiak garbi eta umil jaso behar dira ardurak»

«Garrantzitsuen lantalde ona osatzea» dela dio alkate berriak ▶ 6

Paxi Iturriaga. A. IMAZ

hitza
argazki
lehiaketa

bidali opor hauetako argazkia

ARGAZKIAK NORA BIDALI

- ▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
- ▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
- Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia Mendexa-Lekeitiko **VILLA ITSASO** hotelean **bi pertsonentzako** asteburua.

2. saria Talasoterapia **Zelai** Zumaiako **TALASOZELAI** tarasoterapia zentroan **bi pertsonentzako** zirkuitua.

3. saria Tolosako **DENAK** tabernan **lau pertsonentzako** afaria.

ZOKRETA APARTAK

PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira

GUTUN@K ▶

Muntaia polizialik ez! Isma askatu!

Idatzi honen bitartez, gure lagun Ismael Fakhri Delgadooren egoera salatuta nahiko genuke. Tolosar gazte hau, beste hiru gazterekin batera, 2002ko irailaren 29an atxilotua izan zen Zaldibiako herrian, Hodei Galarrairen omenaldian parte

hartzeagatik. Atxiloketaren ostean, aske geratu arren, ondoren iritsitako zitazio judizialean lau urtetako espetxe eskakizuna egiten zitzaion. Epaiketa burutu eta honen aurkako errekursoak egin ostean, Gipuzkoako epaitegiak zigorra bere horretan uztea erabaki zuen. Ondorioz, Donostian, Martuteneko espetxean aurkitzen da orain.

Lehenik eta behin, zigorraren gehiegikeria salatzen dugu, berak egin ez dituen ekintza batzuegatik espetxeratu izan baita.

Bestalde, dispersioa jasateko duen arriskua ere hor dago, horrek, beraren, zein inguruko en sufrimendua areagotuko duelarik.

Gu, bere lagunak garenok, egoera hau salatzeko premia

ikusten dugu. Berak eta euskal presoek jasaten duten egoera ikusirik, dei bat egin nahi dugu: Isma Fakhri eta euskal presoaren eskubideen alde, denak batera lanean tinko jarrai dezagun.

Animo Isma!!!

Ismaren lagunak.

ALAR SEVILLANO, DAVID ETXABE,
AINHOA ORTIZ, JUAN MANUEL
SERRANO ETA IKER BEA ▶ TOLOSA

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

TOLOSA ▶

Donostiako istiluetan atxiloturiko bi tolosarrak, aske

ERREDAKZIOA

Herenegun, Donostian izan ziren istiluetan Asier Eizagire eta Xabier Ibaiondo tolosarrak atxilotu zituen Ertzaintzak, beste zazpi lagunekin batera. Atxilotutakoak Donostian, Antigua auzoan Ertzaintzaren etxean eduki zituzten, eta atzo 13:00ak aldera epailearen aurrera eramanean zituzten Donostiako Inspekzio Epaitegira, deklaratzera. Guztiak baldintzapean libre utzi zituzten, Juan Mari Olano Askatasuneko kidea izan ezik. Gertuen duten epaitegira hamabostera sinatzera joan beharko dute.

Desordena publikoa eragitea leporatzen diete zortzi lagun.

VILLABONA ▶

«Atxiloketak salatzen» erasotu dute trenbidea

ERREDAKZIOA

Ostegun gauean Renfeko trenbide sarean egindako eraso aldarrikatuz, ustezko erasotzaileek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKA egindako dei batean, «egun hauetako atxiloketak eta PSOren jarrera faxista» salatzen eta «Lizartzako kolonizatzaileei abisu bezala bali dezan» egin zuten eraso.

Ostegun gauean trenbideko katenariaren kontrapisua hautsi zuten Villabona eta Andoain artean. Ondorioz, zerbitzua gorabeheratsua izan zen.

TOLOSA ▶ KULTURA

Extremaduraren Astea ospatzen ari dira La Jaran

Haurren eguna izango da gaur, eta jokoak eta txokolatada izango dira

ESTI EZEIZA

Extremadurako Astea ospatzen ari dira egun hauetan La Jara elkarteak. Larunbatean eman zioten hasiera, urtero legez, Guadalupeko Amabirjinari egindako lore eskaintzarekin. Ondoren pintxo eta postre dastaketa egin zuten.

Kultur ekitaldiz betetako aste honetan, saio nagusia ostiralean izango da. Hemen, Joakin Araujo naturista naturaz mintzatuko da 19:00etatik aurrera. Honen ostean afaria izango da. Hau Flor de Jara abesbatzakoek alaituko dute.

Behin baino gehiagotan izan da Araujo Tolosan, askotan hartu izan baitzuen parte Zumardiar jardunaldietan. Madril-dar honek lotura handia du Extremadurarekin, izan ere, denboraldi luzeak egiten ditu bertan.

Herenegun, Extremadurako meza ospatu zuten Arrameleko San Joan ermitan. Ondoren toka eta igel txapelketa jokatu ziren. Atzo berriz, ardo dastaketa izan zen. Arabar Errioxako ardoak edan zituzten hasieran, eta ondoren Mikel Garaizabal



Adin ezberdinetako jende ugari hartzen du parte Kultur Astearen gauzatzen diren ekitaldietan. IMANOL GARCIA

enologoa edari honen inguruan mintzatu zen. Bizkaitar hau da, hain zuzen, *Ardobidez* Arabako Errioxa izeneko liburaren egilea.

Gaur gaztetxoenen txanda da, izan ere, haurren eguna ospatuko dute elkarrean. Ume jolasak, eta txokolatada izango

dira arratsaldean. Bihar, 19:30etik aurrera, Extremadurako jaki bereziak prestatuko dituzte: ogi apurrak, patata tortilla, tomate zopa, gazpatxo, piperren entsalada, tomatearena, ... Jarraian hara hurbiltzen direnek jaki hauek dastatzeko aukera izango dute. Honen os-

tean platerrik gozoena zein den erabakiko dute.

Larunbat honetan, Virgen de Guadalupe folklore taldeak emanaldia eskainiko du Triangulo plazan. Ondoren, flamenko ikuskizuna izango da La Jara elkartearen egoitzan bertan.

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95




KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSA ▶ ERAKUSKETA



Gogoratu behar ez den iragana eta itxaropentsu datorrela dirudien etorkizuna islatzen du lanen bidez



Malko batek eragin duela dirudien arrastoa. Pozaren, tristoraren, ala minaren malkoa?

Orografia pertsonala koadroetan islaturik

Josep Maria Codinaren 'Orografia personal' erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian urriaren 6ra arte

IÑIGO TERRADILLOS

Pasa den ostiraletik ikusgai dago Aranburu Jauregian Josep Maria Codinaren *Orografia Personal* pintura erakusketa. Urriaren 6ra arte izango da kataluniarraren lanak ikusteko aukera. 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik, daude zabalik Aranburu erakusketako atea.

Codinaren erakusketa Go-tzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* erakusketarekin batera inauguratu zuten, eta

azken hau ere urriaren 6ra arte izango da ikusgai. Ez da kasualitatea izan biak elkarrekin jar-tearena; izan ere, Etxeberria andoaindarra katalunian izana da bere lanekin, eta han Codinarenkin batera erakusketa batean hartu zuen parte.

Josep Maria Codinaren lanek, erakusketaren izenburuak dioen bezala, orografia pertsonalaren isla diruditelako diote artearen kritikoek. Bailarak, mendiak edota mendi-mazelak; plazerraren leku bihurturiko lautada zabalak, eta on-

doan, irabazlea zein den ez dakigun gerratea egon dela argi uzten duten bihurguneak. Borroka eta garaipena. Gizakia, bizitza eta denbora... Hauek dira bere pintura lanek islatzen dituzten ideietako batzuk.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Egurra. Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. 615 75 57 62.

SEGA ▶

Baliarrain nagusi Taldekako Txapelketan

Sega Pikatze Txapelketan eskualdekoek ez zuten lehen postuetan sailkatzerik lortu



Goian, Etxeberria amasarra eta Arteaga baliarraindarra sega pikatzen. Behean, Taldekakoan irabazleak. ESTITXU IMAZ / GOIERRIKO HITZA

ERREDAKZIOA

Larunbatean Euskal Herriko I. Segá Pikatze Lehiaketa, eta II. Euskal Herriko taldekakoa jokatu zituzten Ordizian. Lehenengoan Jose Antonio Garmendia gaintzarrak irabazi zuen, eta taldekakoan, Baliarraingo taldea nagusitu zen.

Denera, Segá Pikatze Txapelketan 21 lagun lehiatu ziren, emakumeak nahiz gizonezkoak, eta hauetatik lau eskualdekoak ziren: Joxe Gabirondo gazteluarra; Arkaitz Arteaga Baliarraingoa; Jokin Garmendia anoetarra eta Iurre Olano gazteluarra. Dena den, ez zuten lehenengo postuerik lortu. Epaimahaiko kide-

en iritiz Jose Antonio Garmendia gaintzarra izan zen antzinako zeregin horretan abilezia eta fintasan gehien erakutsi zuena. Bere atzetik, Antxon Erauskin lasartearra eta Zaldibiako Jexux Mari Jauregi sailkatu ziren.

Euska Herriko Taldekako Segá Txapelketan, berriz, eskualdekoek emaitza hobekatu zituzten. Kasu honetan, Baliarrainek irabazi zuen gizonetakoan (2:16). Bigarren Zaldibia geratu zen (2:35), eta hirugarren postuan, Gaztelu (2:09, penalizatuta) sailkatu zen. Emakumezkoetan, Elgarrekin taldea nagusitu zen, eta bere atzetik Gaztelukoak geratu ziren.

hitza

Praktikak HITZAn

Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazio lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behea- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldekohitza.info

VILLABONA ▶

Agirre nagusi Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketan

Beste billabonatar batek, Aritz Garinek, bigarren saria lortu du 14-18 urte bitartekoan

ERREDAKZIOA

Amaia Agirre bertsolari billabonatarak irabazi du aurtengo Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa helduen mailan. Irakasten badut zer ikasi lanean erakutsitako gaitasuna dela medio eman dio epaimahaiak lehenengo saria bere kategorian. Errenterriko Iñigo Legorburu geratu da bigarren lekuan. *Etorkezun hipotekatuak* lanarekin, eta Ander Lizarralde oiarztuarra hirugarren, *80 kandelaren* izeneko bertsoekin.

Gazteetan, berriz, 14-18 urte artekoetan Aritz Garin billabonatarak bigarren saria lortu du. Hodei Iruretagoiena zarauztarrarekin partekatuz. *Bizitza ez da dirua eta dirua ez da bizitza* izenburua jarri die bere bertsoei Garinek.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶

Atzerritarrei zuzendutako euskara ikastaroa

ERREDAKZIOA

Villabonako eta Zizurkilgo udalek atzerritarrentzat 60 orduko euskara ikastaroa antolatu dute. 10 euroko kostua du eta izena udal bulegoetan eman daiteke hilaren 21era arte.

JAIK ▶

Hurrengoan zain

Hainbat herritan herenegun bukatu ziren jaiak; Alkizan jarraipena izango dute



Asto lasterketak ikusmin handia sortu zuen Alkizan; ardi txakur lehiaketa izan zen, besteak beste, herenegun Zizurkilen. HITZA

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herritan herenegun bukatu ziren festetako ekitaldiak eta beraz datorren urtera arte zain izan beharko dute herrian festa giroa izateko. Bedaion, Elduainen, Lizartzan, Tolosako Izaskun auzoan eta Zizurkilen, beraz, itxaron egin beharko dute. Ez, baina, Alkizan. Datorren ostiralean eta larunbatean izango dute asteburu honen jarraipena.

Oso gustura agertu dira herri guztietan festetan izan den partaidetzarekin eta eguraldiarekin. Alkizan «giro ezin hobean» egin zen herenegun asto lasterketa. Partaideek moztortuta atera behar zuten. Guztira bederatzik parte hartu zuten. Irabazlea Aritz San Sebastian izan zen eta bigarrena Julen Sorarrain, biak alkizarrak. Asto irabazlearen nagusiak, Bentzalaga baserriko Migel Angel Ugartemendiak, ere saria izan zuen.

Bedaioako festa batzordetik azaldu dutenez, «bertako eta kanpotik etorritako jendearen laguntzari eta borondateari esker, oso ondo atera dira festak». Parte-hartzearekin ere gustura daudela adierazi dute.

Elduaindik ere iritzi berekoak ziren. Aurtengo berritasunetako bat zaldi erakustaldiarena izan zen eta jendeak gustura ikusi zuela diote. Larunbateko Abiba Disko Jaiera joateko autobusa ere bete egin zela diote.

Lizartzan oso gustura agertu dira festen inguruan. «Jende ugari elkartu da» eta «egon diren probokazioen gainetik» jaiak aurrera joan direla nabarmendu dute festen antolatuzaileek.

Orokorrean ondo joan direla azaldu dute Zizurkilgo Udaletik. «Egunez jende asko ibili da eta eguraldiak lagundu du», azaldu dute. Izan ere, abuztuan baino eguraldi hobea, festarako behintzat, egiten ari du hil honetan.



Bedaioako txirrindulari igoyeraren bi parte-hartzaile. HITZA



Elduainen zaldi erakustadia izan zen berritasuna. HITZA

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

Nierebal Nierebal... Nierehc...
re... Nik ere joateko...
asmoa...
daukat...
chortxeiza...
aztesentituko...
tuKontak... antukogara. Kontu:

AMEZKETA ▶

Etzi ezohiko plenoa izango da udaletxean 20:30ean

Etxebizitza tasatuak, eta Kultur Etxea izango dira, besteen artean, mintzagai

ERREDAKZIOA

Etzi 20:30ean ezohiko udal plenoa izango da eta udaldegioak bilduko dira. Bertan, besteen artean, etxebizitza tasatuak arautzeko udal ordenantzari buruz hartutako akordioaren aldatetaz ariko dira.

Alkatetzaren ebazpenen berri emango dute, bestalde. Kultur Etxea ere lehentasunezko proiektutzat onartu nahi dute, «nahiz eta oraindik zehaztu gabe egon». Zumadi eskolako aparkamenduaren proposamenaz ariko dira ondoren.

Altzai auzoko kalte handiak konpontzeko obraren adjudikazioari helduko diote, gehi Haundi, Iraregi eta Astamutilletako bideen obretakoa.

Herriko festetako balantzea egingo dute; halaber, Ugarteko festetarako diru laguntzaz mintzatu ere.

GIZARTEA ▶

Ipuin kontalaria Amezketan eta Abaltzisketan

Ostiralean Idoia Sanchez ipuin kontalaria izango da, bai Amezketan eta baita Abaltzisketan ere. Abaltzisketan 17:00etan egongo da, liburutegian. Amezketan, berriz, ondoren, 18:30etik aurrera balioanitzeko gelan.

AMEZKETA ▶

Odol-ematea, ostiralean arratsaldean

Amezketan odol-ematea izango da datorren ostiralean, hilaren 14an, hain zuzen. 18:30etik 20:30era bitartean izango dira odola ateratzen balioanitzeko gelan. Bertarazten direnen artean mokadutxo batzen dute, indarrak berriz hartzeko.

GIZARTEA ▶

Ikastetxeak bete haur

Ikasgela berria, batzuk ikastetxe aldaketa, beste askok ikaskide ezberdinak... Bi hilabete oporretan eman ondoren, atzo gehienek ekin zioten ikasturte berriari

NEREA URBIZU

Ikastetxeak berriz ere bete dira ikasle. Udako bi hilabete oso-osorik egon dira ikastetxea zapaldu gabe, eta batzuk, ikasturte berriaren baitan, euren lehen eguna lehengo astean izan bazuten ere, atzo eman zioten hasiera gehienek, ikasle nahiz irakasle.

Batzuk ikasgelaz aldatzeaz gain, gunez ere aldatu egin dira, berria egin dutelako. Beste batzuk, ordea, eskola bera txiki geratu zaielako beste alternatiba batzuetan pentsatu dute: Ikaztegiatan 5. eta 6. mailako ikasleak etxe aurrefabrikatu batean daude: «Gustura» daudela esan zuten ikasleek, «nahiz eta gaur serio lanean ez hasi». Irakasleak esan bezala, «beroa egiten du, baina aire egokitua ere badugu».

Hainbat lekutan joan den astean hasi ziren lanean haur eta gazte batzuk, eta dagoeneko erabili dituzte koadernoko orri batzuk; aste guztiko ordutegia buruz ikasten hasiko ziren batzuk.

Txikiak ere bai

Txikiak ere hasi dira margoak eskuen artean hartzen eta adimena zorrotzen, ahots berriak entzuten eta ezagutzen, eta aurpegi berri asko ikusten. Batek baino gehiagok egin du negar, berritasun horren aurrean egonik, baina guraso batzuk ere bertan geratu dira, haurarentzat horren gogorra ez izateko, eta behar izanez gero, haurra hartu eta etxera eramateko.



Ikaztegiatoko txikiak eskolaren atarian utzi dituzte jostailuak. N. U.


Lehen eta azken egunak dira gogorrenak eskolan, bai txikiak eta baita helduagokontzat ere. Gauza berriak ikasleko gogoak, ordea, badituzte, eta lehen egunak zailak badira ere, hasieran, noren ondoan eseriko diren, zein irakasle egokituko zaien, zein ikaskide izango diren, zein ibilaldi izan-

go dituzten, edota zein material beharko duten pentsatzen dute. Sentsazio hori normalean ona izaten da.

13:00a aldera ikasleak etxera joan ziren, eta atzo ere, urteko eskola egun guztietan bezala, aitak edo amak bazkaltzeko zer prestatu dieten pentsatzen joango ziren.



Ikaztegiatoko 3. zikloko ikasleak etxe aurrefabrikatu batean daude, eskola ondoan. Eskuinean, DBH 3. mailako ikasleak pasillotik beste ikasgela batera joaten. N. URBIZU



Laskorain ikastolako 5. mailako ikasleak ostegunean hasi ziren lanean. N. URBIZU

goxoagurea **egiozu hozka!**
Villabona eta Zizurkilera Euskara

VILLABONAN EDO ZIZURKILEN EUSKARA IKASI NAHI BADUZU...

- Dena gomendatzen duen gero, bestelako Zuzentzaile edo irakasle berrak erabiltzeko diru, baxerak, hiru gutxi gehiago ez izaten.
- Udalek marturizuen %75 arto onartuko du (guztira 111.400 €).
- Hurrez gero, Marturizuguna programari parte hartu gero, %15 gutxiago daude ikasleak jaso behariko zuzen diru laguntza. Urteko emango duen Villabonako eta Zizurkilera Udalek Marturizuguna programari buruko informazioa, eta irabian irabiki da erabiltzeko gero.

Villabonako Udalek laguntzak eskaintzen ditu euskarari ikasleko Villabonako bertan edo herriko kargu. Gutxienez, horriko baldintza hauek bete behar dira:

- Villabonako erretiratutako egitea
- Gutxienez, %85eko asistentzia
- Alderdi Deustena errendimenduan (lagokorrez)
- Matrikulazio onartutako izatea

goxoagurea ...euskara

LIZARTZA ▶ POLITIKA

EAE-ANVren esanetan, «PP jaietan probokatzera eta burla egitera etorri da»

«Ezker abertzalearen aurkako estrategiaren barnean, zenbait lizartzar akusatu eta epaitegira eramatea» lortu dutela salatu dute EAEtik

ASIER IMAZ

Jaiak amaitu berri diren honetan, Lizartzako azken gertakarien inguruan, EAE-ANVk komunikatu bat zabaldu du PP alderdiaren eta Regina Otaola buru duen Lizartzako udal korporazioaren «jarrera» salatuz eta «sortu dituzten istiluen inguruan» balorazioa eginaz.

EAE-ANV alderdiak lau puntu aztertu ditu. Lehendabizi, «PPren agintarien jarrera» salatu nahi izan dute, «beste behin, Lizartzara herria eta herritarrak iraitzera, gutxiestera eta burla egitera joan direlako». Gaineratu dutenez, «PP ez da ongietorria Lizartzara»; izan ere, «Azken hauteskundeetan Lizartzako herria argi eta garbi mintzatu zen eta PPK, Franco-



Herritarrek Espainiako banderaren aurrean Geurea ikurrina zioen pankarta jartzen ari zirenean. HITZA

ren garaian bezala, Lizartzako alkatezta herritarren borondatearen aurka lapurto eta bereganatu du».

Bigarren puntuari, Espainiako bandera eta «PPk ezker abertzalearen aurka daraman estrategia» aztertzen ditu EAEk. «PPk lizartzatarron borondatea» ez duela errespetatzen dio. Halaber, «PP Lizartzara, herritarrak euren festetan probokatzera eta arrotz zaion Espainiako bandera inposatzera» agertu zela dio. «PPk ere ezker abertzalearen kontrako estrategiaren herritarrak akusatu eta datorren asteazkenean epaituak izan daitezkeen lortu du». Bide horretan, EAE («jopuntuari» jarri dute «ilegalizazioa bultzatu nahian».

Azken bi puntuari, «Ertzaintzaren jarrera eta probokazio antidemokratikoei erantzun beharra» azpimarratu dute alderditik. «Inposaketa antidemokratikoa gauzatzeko ertzainen jarrera salatu» nahi izan dute, izan ere, herriaz eta herritarrez trufa egitera etorri diren agintariak babesten eta herritarren borondatearen aurka aritu direlako». Azkenik, deia lizartzarrei, «gure aldarrikapenak bultzatzen jarraitzeko eskatuaz, probokazioei erantzunez».

PATXI ITURRIAGA ▶ GAZTELUKO ALKATEA

«Garrantzitsuena lantalde ona osatzea da»

«Burua argi, ideiak garbi eta umiltasunez» azaldu da

A. IMAZ

Maiatzeko hauteskundeetan Iturraundi plataforma gailendu zen Gaztelun. Ondorioz, Patxi Iturriaga (Tolosa, 1971) zerrendaburuak hartu zuen alkatezta postua, Patxi Navas ordezkatuaz, hain zuzen ere.

Alkate postua hartzen duzun lehen aldia da. Nola ikusten duzu zure burua erronka berri honi aurre egiteko?

Nire ustez, erantzunkizunak datozen bezala jaso behar dira; burua argi, ideiak garbi eta umiltasunez. Hala ere, garrantzitsuena lantalde ona osatzea da. Gure kasuan jende mordo bat gara lanerako prest eta horrek garrantzia kentzen dio alkatezta bat edo bestea izateari.

Zein proiektu dituzue lau urte hauetarako?

Proiektuen barruan hiru atal

aurreikusten ditugu. Hirigintza barruan, uraren azpiegitura eguneratzea, baserri bideak, neguan bereziki, elurrak eta izotzak sortzen dituen trabak behar dituen makinaria eta medioekin pairatzea, eta... Azkenik, ostatuari ateak irekitzea, hutsune nabarmena antzematen delako, jakinik gune honek bere garaian zerbitzu anitzak ematen zituela: liburategia, ludoteka, musika eskola, jatetxea eta aterpetxea. Nekazaritza eta ingurumenari begira berriz, auzolan giroari eutsiz eta indartzuz, baserri eta mendi bideak konpondu nahi-ko genituzke; baserrien identifikazio planoak; suaren kontrako hornidura zentroak eta Aizkorregiko zonaldea berreskuratzea ahaztu gabe. Hirugarrenik, ongizatearen atalean, Gazteluko haurren jaiotze kopuruaren arabera haurtzain-

degi zerbitzua emateko asmoa dugu; jolasguneak egokitu eta kultura eta kirola bultzatuz. Aipatzekoa da Gazteluko herritarrak, biztanle kopurua kontutan hartuta, kirol munduari ekarpen izugarria eman diola. Bukatzeko, hirugarren adinaren inguruan, hainbat ekintza antolatuko dira.

Etxebizitzaren gaia nola aurkitzen da Gaztelun?

Bi proiektu dauzkagu esku artean: Osingoen eta Erbianerrekarenak. Etxebizitzak eta apartamentuak agitea aurreikusten da. Hauekin, bertako gazteek etxebizitza duinak eskuratuko dituzte.

Harrobia estaltzeko lanak hasi ziren, baina orain geldirik daude. Zergatik? Ze etorkizun eman nahi diozue harrobiari?

Aizkorregiko inguruaren berreskurapena burutzeko



A. IMAZ

proiektu bat jarri genuen martxan. Nonbait arazo tekniko puntualak suertatu dira, baina behin horiek zuzenduta eta epe laburrean, garai batean harrobia izan zenaren kokalekuan jarraituko dute betelak. Honen ostean, basogintza zonalde modura geldituko da. **Iturraundin, Ezker Batua, ezker abertzalea eta indepen-**

dienteak aurkitzen zarete. Nolako da zuen arteko harremana?

Iturraundi taldean ikuspegi politiko ezberdinak daude, baina bere zutabea ezker abertzalean datza. Hori horrela denez, herria eta herritarren ardatz duela, berdintasunean oinarritutako ezkerreko politika egitea da helburua.

LEITZA ▶ II. TALO EGUNA



Talogileak. Villabonatarrek eta saralegitarrak jo eta ke aritu ziren talo egiten goiz osoan zehar. Beroa egin arren, jendeak gogotik jan zuen. Gainera, villabonatarrek artozuritzaleak jarri zituzten eta irina txikitzeko hiru motor, horietako bat elektrikoak. Talotegia enpresakoek beraien produktuen erakusketa egin zuten. A.O.



Talao, protagonista. Talao izan zen protagonista igandean herriko plazan. Talorik arrakastatsuen txistor-talao izan zen eta saralegitarrak onddo, antxoak, piper eta gulekin ere egin zituzten. A.O.



Jendetza. Azoka ireki orduko jendea hurbildu zen plazara. Goizean gehienbat kanpotarrak ibili ziren eta eguerdian, meza amaitu ondoren, herritarrek hurbildu zirela azaldu dute antolatzaileak. A.OTZABAL



Herri kirolak. Aizkoran Julen Kañamarek eta Arkaitz Olano, Aratz Mugerza eta Ruben Saralegiren aurka aritu ziren. Eneko Saralegik bi mozketak egin zituen eta Pello Kañamaresek gizon baten irudia egin zuen motozerrarekin. Harri-jasotzen Mikel Saralegirekin Joseba Ostolaza aritu zen Aimar Irigoienek ordez. A.O.

Talo Egunak erantzun «oso ona» izan du

Ohikoa den bezala, txistor-talao izan zen postuetan gehien saldu zen talao

NAIARA GARZIA

Herenegun Leitzan ospatutako Talo Egunean «jende asko» ibili zela azaldu du Yolanda De Karlos Plazaola Partzuergoko kudeatzaileak. «Jende asko ibili zen igandean, lehengo urtean bezalatsu. Gainera igandean gauza asko zeuden, estropadak, Euskal Jaia... Hori kontutan hartuta erantzuna oso ona izan da». Artisauek ere «pozik» azaldu direla adierazi du De Karlosek.

Kanpotik ere jende asko hurbildu zen Talo Egunaz gozatzen. «12:00 bitarte gehienbat kanpoko jendea ibili zen. Prentsaurrekoa egiteaz gain irrati iragarkiak jarri genituen eta horrek jendea erakarri zuen. Eguerdia aldera, berriz, meza amaitu ondoren, herriko jendea animatu zen plazara», dio De Karlosek.

Talogileak ere «oso gustura» gelditu dira jasotako erantzunarekin. Joxe Mari Villabonak azaldu duenez, «jende asko ibili zen eta eguraldia ere oso ona egin zuen. Nik nire postuan artozuritzaleak jarri nituen eta oso polita izandu zen, jendea iragarri gustatu zitzaion. Gainera, korda egin zuten». Villabonak Sunbillatik ekarritako errota elektrikoak ere arrakasta izan zuen. «Ez zuen irina oso ongi egiten, baina jendeari gustatu zitzaion». Haurrentzako tailerrez ere beraien arduratu ziren. «100 ume inguruk parte hartu zuten, eta gero hobekien aritu zenari saria eman zitzaion», dio Villabonak.

Kristina Saralegi ere lanean aritu zen igandean, beste 7 lagunekin batera. Hauek talo-pintxoak egin zituzten. «Ohiko taloak baino txikiagoak dira, eta merkeagoak», dio Saralegik. Txistorra, urdaia, gazta eta txokolate pintxoak gain, postu honetan ondorengo beste 4 talo-pintxoak eskaini zituzten: ondoak, gulak, piperrak eta antxoak. «Hauetatik gehien saldu genuena onddoena izan zen».

Talo platerren erakusketa

Honetaz gain, herenegun Leitzako karrapera hurbildu zirenek Leitzako 5 taberna eta jate-txek egindako platerak ikus ahal izan zituzten. Txokok talo-pintxo dastaketa egin zuen, Arakindegiagoek bi plater egin zituzten, bat gazia eta beste gozoa. Axuri-minak izenekoak izan zen gazia eta intxaurrekremaz betetako talao, berriz, gozoa. Basa-kabik bere platerari Itxurazko txokolata txurroekin izena jarri zion, babarrunekin egindako saltsan oinarritzen baitzen. Gaztañagakoek desegindako gazta onddoekin egin zuten, eta Munsarrek garai batean jaten zen plater bat berreskuratu zuen, *Marrrikue* izenekoak, talao, gazta biguna, irasagarria eta intxaurrekin.

Mahai bakoitzean egokitutako lekua jatetxe edo taberna bakoitzak bere gustura apaindu zuen eta Plazaola Partzuergoak ere bere proposamena egin nahi izan zuen: talao bazarra.

Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Merkataritza kontratua.
- Soldata interesgarria.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da: • Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.

Curriculum Vitae zehazta bidali irailaren 20 baino lehen. gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehaztea

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Hilaren 23ko Ibarako Azoka berezian Xepla elkartek 3. Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa antolatuko du. Izen-ematea, xepalaje@hotmail.com-en edota 660 392331 (Fermin Arregi) edo 679 238784 (Jaione Bengoetxea).
Anoeta. Euskal dantza ikastaroa antolatu du Anoetako Udalak (3 urtetik aurrera). Izen-ematea, 9:00etatik 13:00etara. Informazioa, 943 651200.
Leitza. Jeiki abesbatzak kantu klaseak antolatu ditu herritar guztiei irekiak urritik aurrera Iruñeko Eugenia Etxarren irakaslearekin. Izen-ematea, 635 714235 zenbakian 16:00etatik 18:00etara.
Leitza. Arkupeak jubilatutako elkartek irteera antolatu du Benidormera, hilaren 22tik urriaren 6ra. Izen-ematea, elkartean.
Tolosa. Beotibarko bataila eta Euskal Herriaren eraikuntza nazionala hitzaldia emango du Floren Aozek udal batzar aretoan 20:00etan.
Tolosa. Haurraren Eguna Extremadurako Astearen barruan La Jara zentroan. Haur jokoak eta txokolatada izango da.
Tolosa. Hegats igeriketa praktikatu nahi dutenek Usabaleran joan behar dute 19:15ean (11 urtetik gorakoa izan behar da).

ERAKUSKETAK

Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Jesus Elosegiren omenezko argazki erakusketa Aranburun.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, L. Amaro azoia 9. 943 675118.
Goizuetan. Apeztebea, L. M. Kale Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudi eder gehiago

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Amaia Sagastibeltzak Huescako paisaia eder bat bidali digu, eta Koldo Mendibilek, berriz, Butrongo gazteluaren irudia



ORDESA (HUESCA, ESPAINIA) ▶

Amaia Sagastibeltza (Leitza).

Paisaia zoragarri hau bidali digu Amaia Sagastibeltza leitzarrak, bere bidaiari topatu zuena. Hauxe azaltzen digu argazkiarekin batera: «Argazki hau ekainaren 26an ordesan ateratakoa da, bertan, Azaras ibaiko ur-jarrai bat ikus dezakegu».

BUTRON (BIZKAIA) ▶

Koldo Mendibil (Ibarra)

«Ez dago oso urruti joan beharrik oporretan, gure Euskal Herrian paraje zoragarriak ere baititugu». Halaxe zioen Koldo Mendibilek bere argazkia HITZA Argazki Lehiaketara bidali zuenean eta arrazoirik ez zaio falta behintzat. Bizkaia egin zuen txangoa ibartarrak eta Brutongo gazteluari ateratako argazki eder hau bidali digu.



AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa